



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de
Seguridad y Salud Laborales

**PREBENTZIO-ZERBITZUEK
OSASUN-
ADMINISTRAZIOETARA
BIDALI BEHARREKO**

**DATUEN
GUTXIENEKO
MULTZOA**

2022ko otsaila



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de
Seguridad y Salud Laborales

PREBENTZIO-ZERBITZUEK
OSASUN-ADMINISTRAZIOETARA
BIDALI BEHARREKO
DATUEN GUTXIENeko MULTZOA

AURKIBIDEA

1. SARRERA

1.1. Aurrekariak eta lege-oinarriak

2. ALDEZ AURRETIK KONTUAN HARTZEKOAK

3. EZARRITAKO HELBURUAK ETA JARDUERAK

4. LANEKO OSASUNARI BURUZKO INFORMAZIO-SISTEMAREN INFORMAZIO-BIDEAK

5. INFORMAZIO-SISTEMAREN DESKRIBAPENA

6. LANEKO ESPOSIZIOARI BURUZKO DATUAK

7. LANAK ERAGINDAKO KALTEEI BURUZKO DATUAK

8. COVID-19 KONTAKTU ESTUEN DEKLARAZIOEI BURUZKO DATUAK

9. BESTE DATU BATZUK:

- Fitxategiak inportatzea
- Zerrendak

10. NOLA KOMUNIKATU DGM APLIKAZIOAN

- Zer, nork, noiz eta nola komunikatu
- Nola sartu
- COVID-19 kontaktu estuak deklaratzeko
- Esposizioak deklaratzeko
- Osasun- kalteak jakinaraztea:
 - o Kalteak
 - o Gaixotasun profesionalaren susmoa
- Fitxategiak inportatzea
- Zerrendak

11. LEGERIA

1. SARRERA

Lan-osasunari buruzko osasun-informazio sistema bat sortzeko premiak ekarri du datuen gutxieneko multzoa (CMD), langileen osasun-egoera zein den jakiteko eta, horrela, lan-baldintzak hobetuz osasun-maila handitu ahal izateko.

1.1. AURREKARIAK ETA LEGE-OINARRIAK

Osasun-informazio sistema bat sortzeko premia eta sistema hori ezartzea zein erakunderi dagokion hemen dugu jasota:

- ✓ 14/1986 Lege Orokorra, apirilaren 25ekoa, Osasunari buruzkoa. Lege horren 8. eta 21. artikuluetan, laneko osasunari buruzko datuak informazio-sistemetan txertatzeko beharra jaso zen. (Gaur egun, Osasun Publikoari buruzko 33/2011 Lege Orokorrak indargabetua, integrazio hori bere gain hartu eta eguneratu baitu).
- ✓
- ✓ 7/1993 LEGEA, abenduaren 21ekoa, OSALAN sortzekoa. 4. artikuluan, erakundeak bete beharreko eginkizunak definitzen ditu, besteak beste, 1c puntuan jasotakoak: "*Zaintza epidemiologikoko sistema bat ezartzea, lanean sortutako gaixotasunak eta lan- eta arrisku-faktoreek langileen osasunean duten eragina ikertzeko ...*".
Eta 11.b artikuluan, Laneko Osasunaren Unitateari dagokionez, honako hau ezartzen du: "*egituraren aldetik OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen menpeko izango bada ere, jarduerari dagokionez Osasun Sailaren menpe egongo da. Indarrean dagoen legedian ezarritakoaren ondorioetarako, osasun-agintaritzza izango da*".
- ✓ 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa. Printzipio horiek berresten ditu laneko osasunaren eremu zehatzean, 10. artikuluan, osasun-arloan eskumena duten administrazio publikoen jarduketei buruzkoan, eta 23. artikuluan, enpresariak egin eta agintarien eskura jarri beharko duen dokumentazioari buruzkoan. Artikulu horren 4. zenbakian honako hau ezartzen da: "*Artikulu honek aipatutako agiriak, berebat, osasun agintaritzen esku jarri beharko dira, agintaritzza horiek bete dezaten lege honen 10. artikuluan xedatutakoa*".

Halaber, 30.3 eta 31.2 artikuluetan ezartzen du enpresaburuak eskura jarri behar diela Prebentzio Zerbitzuari eta izendatutako langileei, beren eginkizunak behar bezala bete ditzaten, beharrezko informazioa eta dokumentazioa, hau da, lanpostu edo eginkizunengatik



arriskuei buruzko dokumentazioa, lan-baldintzen aldizkako kontrolak, prebentzio- eta babesneurriak eta larrialdi-neurriak.

- ✓ 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio-zerbitzuen Araudia onartzen duena. 38.1 artikuluan honako hau xedatzen du: "Prebentzio Zerbitzuak lehen mailako osasun-arretako eta osasun-laguntza espezializatuko zerbitzuekin lankidetzan jardungo du, lanarekin lotutako gaixotasunen diagnostikoa, tratamendua eta errehabilitazioa egiteko ...". Osasun-informazioari buruzko 39.1 artikuluan honako hau xedatzen da: "*Prebentzio Zerbitzuak osasun-agintariekin elkarlanean arituko dira lan-osasuneko osasun-informazioko sistema hornitzeko. Informazio-sistema horretako datuen gutxieneko multzoa Osasun eta Kontsumo Ministerioak ezarriko du, autonomia-erkidegoetako organo eskudunekin adostu ondoren, Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Kontseiluaren barruan. Autonomia-erkidegoek, beren eskumenen esparruan, osasun-informazioko sistema hori garatu ahal izango dute*". Eta Errege Dekretu horren 39.2 artikuluan honako hau ezartzen da: "*Prebentzio Zerbitzuko osasun-langileek zaintza epidemiologikoa egingo dute, eta, horretarako, lan-osasuneko osasun-informazioko sistema mantentzeko beharrezkoak diren ekintzak egingo dituzte bere jarduera-eremuan*".
- ✓ 306/1999 Dekretua, uztailaren 27koa, prebentzio zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegoan burutzen dituzten jarduera sanitarioak arautzen dituena, Osasun-informazioko sistemari buruzko 14. artikuluan, 1. eta 2. paragrafoetan, hurrenez hurren, honako hau jasotzen da: "*Prebentzio Zerbitzuak, ezar dadin gutxienezko datu-kopuruaren arabera, Agintari Sanitarioekin batera jardungo du Laneko Osasunari buruzko Informazio Sanitariorako Sistema hornitzailekoan*" eta, "*Osasun Laboralari buruzko datuen tratamendu automatizaturako sistema jarriko da, urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorritik. Lege hori indargabetuta dago indarrean dagoen Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren bidez, eta eguneratuta dago Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren bidez.*
- ✓ 191/2002 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Egitura eta Jarduerarako Araudia onartzeko dena. 4.1 c) artikuluan honako hau ezartzen da: "*Osalanek, besteak beste, eginkizun hauek edukiko ditu: Lanean sortutako gaixotasunak eta langileen osasunean laneko arrisku eragileek izan dezaketen eragina ikertzeko epidemiologia-zaintzarako sistema ezartzea...*". Eta Osalanek egingo dituen funtzioekin jarraitzen du 4.1 t) artikuluan: *Osasun-agintariek emandako*

norabideen edo egitarauekin bat etorriz, prebentzioko politikaren plangintza egiteko tresna izango den laneko arriskuen mapa egitea”.

21.1 g) artikuluan Plangintza Zuzendariordetza: Zuzendariordetza honen eginkizunen artean, hauek daude besteak beste: *“ Egon daitezkeen aldaera esanguratsu guztiak kontuan hartuta, Lan-Osasunean prebentziorako informaziorako sistema estrategiko bat taiutu, ezarri eta mantentzea eta sistema hori etengabe egokitzea, egoera sozial eta lanekoaren eboluzioaren arabera”.*

22.4 artikuluan – Laneko Osasun Unitatea, *“Prebentzioaren inguruko kultura hedatzeari ekingo dio, enpresaren eta erakundeen alorretan informazioa areagotzea eta bidera dezaten baliabideak diseinatuz eta garatuz; eta informazio sistemak egokitzea ebazpenak hartu eta prebentzio kudeaketari laguntzeko”.*

- ✓ Laneko osasunari buruzko datuak biltzeko beharra modu berean jasotzen da 843/2011 Errege Dekretuan, ekainaren 17koa, prebentzio-zerbitzuen jarduera sanitarioa garatzeko baliabideak antolatzeke oinarritzko irizpideak ezartzen dituen.

3.1 j) artikuluan hau jasotzen da: *“Laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuek garatu beharreko jarduerak barne hartuko du osasun-agintaritzekin lankidetzan aritzea zaintza epidemiologikoko lanetan eta laneko osasuneko osasun-informazioko sistemaren horniduran eta mantentze-lanetan, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 39. artikuluan ezarritakoaren arabera”.*

- ✓ 33/2011 Lege Orokorra, urriaren 4koa, Osasun Publikoari buruzkoa. 12. artikuluan, osasun publikoaren zaintza definitzen du: *“Biztanleriaren osasun-egoerarekin eta hura baldintzatzen duten faktoreekin lotutako informazioa bildu, aztertu, interpretatu eta zabaltzeko jardueren multzoa da, osasun publikoko jarduerak oinarritzeko”.*

Era berean, artikuluko bereko 2. apartatua hau jasotzen da: *“Osasun publikoaren zaintzan, beste faktore batzuen artean, lanarekin lotutako arriskuak eta horiek osasunean dituzten ondorioak hartuko dira kontuan”.*

Gainera, 33.2 artikuluan honako hau ezartzen du: *“Osasun-agintaritzak, lan-agintaritzarekin koordinatuta, honako jarduera hauek egingo ditu, besteak beste:*

- *Laneko osasuneko osasun-informazioko sistema bat garatzea, osasun publikoko informazio-sisteman txertatua, lanarekin lotutako osasun-arriskuen zaintzari euskarria emango diona.*
- *Adierazle-sistema bat ezartzea lanarekin lotutako politikek osasunean duten eraginaren jarraipena egiteko”.*

40.3 artikuluan honako hau ezartzen da: *"Osasun publikoko informazio-sistemak honako hauek jasoko ditu, gutxienez: osasunaren baldintzatzaileak neurtzen dituzten estatistikak, erregistroak eta inkestak, besteak beste, lan-egoera, pertsonen kutsatzaileen presentzia, eta ezagutza zientifikoak eta osasun-administrazioaren beharrek beharrezko egiten duten beste edozein aldagaitan”.*

41.1 artikuluan, hau jasotzen da: *"Osasun-agintariak txostenak, protokoloak edo beste dokumentu batzuk eskatu ahal izango dizkiete osasun-zerbitzuei eta -profesionalei, herritarren osasuna ahalik eta ondoen babesten dela bermatzeko”.*

Beraz, lege-aurrekarien arabera, OSALAN - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-agintaritza eskuduna den aldetik, Laneko Osasunaren Unitatearen bidez (Osalan sortzeko 7/1993 Legearen 11.b artikuluan jasotzen den bezala), Laneko Osasunari buruzko osasun-informazioko sistema definitu du, prebentzio-zerbitzuei zuzendutako Datuen Gutxieneko Multzoa (DGM), honako helburu espezifiko hauekin:

1. Informazioa sistematikoki eta aldizka bilduz, laneko arriskuen eta kalteen berri izatea ahalbidetzen duten erregistroak identifikatzea.
2. Prebentzio-zerbitzuek osasun-agintariei igorri beharreko gutxieneko informazioa definitzea.

2. ALDEZ AURRETIK KONTUAN HARTZEKOAK

Laneko osasunari buruzko osasun-informazioko sistemak (DGM), sortzen duen informazioaren bidez, aukera eman behar du langileen osasun-egoerari buruzko ezagutza hobetzeko; dagokion analisia egin ondoren, langileen osasun-maila handitzeko beharrezko neurriak ezarri ahal izateko, haien lan-baldintzak hobetuz.

Horretarako, beharrezkoa da jakitea zer nolako biztanleria landuna dugun, zer arrisku profesional dituzten eta zer kalte eragiten dituzten haien osasunean.

Aurkezten den dokumentua behar bezala ulertzeko, aldeaz aurretik zehaztaper batzuk egin behar ditugu:

- a) Enpresetako prebentzio-zerbitzuak DGMren informazio-iturri nagusia dira, baina ez dira lan-osasuneko osasun-informazioko eta -zaintzako jardueretarako jarduera-eremu bakarra.
- b) Informazio-sistema honen datuen gutxieneko multzoa bat dator eta jatorria du osasun-jardueretan, prebentzio-zerbitzuek egiten dituzten osasun-jardueretan, estaldura jasotzen duten langileei dagokienez.
- c) Osasun-administrazioaren eta DGMk jasotzen dituen prebentzio-zerbitzuen arteko informazio-trukea errazteko, Osalanek aplikazio informatiko bat garatu du Interneteko ingurune seguruan. Hori horrela, Prebentzio Zerbitzuei prestakuntza eta informazioa emango zaie haren funtzionamenduari buruz, eta haien informazio-sistemak egokituko dira.
- d) Datu pertsonalen tratamendu automatizatua Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren arabera egingo da. Erregelamendu horrek datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen ditu eta indargabetu 95/46/EE Zuzentaraua (Datua Babesteko Erregelamendu Orokorra) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

3. EZARRITAKO HELBURUAK ETA JARDUERAK LANEKO OSASUNARI BURUZKO OSASUN-INFORMAZIOKO SISTEMAN

1. Lanak eragindako osasun-arazoen Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria aktiboan (EAE) duten eraginari buruzko ezagutza hobetzea.
2. EAEko langileen laneko arrisku-faktore eta -agente nagusien multzoa ezagutzea.
3. Esposizioaren joera eta bilakaera ebaluatzea, bai eta lanak osasunean dituen ondorioak ere.
4. Berehalako esku hartzea eskatzen duten alerta-kasu edo -egoeren agregatuak detektatzea.
5. Prebentzio-zerbitzuei zaintza epidemiologikoko eta prebentzio-plangintzako zereginak erraztea.
6. EAEko laneko segurtasunari eta osasunari buruzko estatistikak eta adierazleak egitea.

Datuen gutxieneko multzoa ezartzearen ondoriozko jarduerak izango dira informazioa urtero biltzea, aztertzea eta interpretatzea, emaitzak zabaltzea eta laneko osasuneko planak eta programak definitzea.

4. LANeko OSASUNARI BURUZKO INFORMAZIO-SISTEMAREN INFORMAZIO-BIDEAK

Euskal Autonomia Erkidegoak, bere lurralde-eremuan, sistemaren mailak eta edukiak, informazio-kanalak eta datuak aztertzeko unitate geografikoa zehaztu ditu.

Prebentzio-zerbitzuetatik datozen datuak aztertu eta azterketa epidemiologikoa egingo da, langileen osasun- eta arrisku-arazoen joeretan izandako aldaketak identifikatzeko, eta planifikaziorako informazio operatiboa emango zaie osasun-agintari eskudunei. Datu horiek estatuko estatistikak egiteko erabili ahal izango dira, maila horretan zer egoera dagoen jakin ahal izateko.

5. INFORMAZIO-SISTEMAREN DESKRIBAPENA "DATUEN GUTXIENeko MULTZOA" APLIKAZIOAN DATUAK BILTZEKO

Prebentzio-zerbitzuak dira datuen gutxieneko multzoaren (DGM) informazio-sistemaren oinarritzko erabiltzaileak. Datuak komunikatzeko, kontsultatzeko eta txostenak lortzeko eragiketa guztiak horretarako sortutako aplikazio informatikoaren bidez egin beharko dituzte. Aplikazio hori DGM (Datuen gutxieneko multzoa) dugu.

DGM aplikazioa lan-osasunaren eremuan COVID-19ak eragindako premietara egokituz joan da, eta gaur egun 5 funtzionalitate handi ditu:

- COVID-19 kontaktu estuen deklarazioa (2019ko abenduan sortutako funtzionaltasuna, prebentzio zerbitzuek ABE formularioa bete ahal izateko).
- Laneko esposizioari buruzko datuak komunikatzea eta kontsultatzea.
- Osasun-kalteei buruzko datuak komunikatzea eta kontsultatzea.
- Fitxategiak inportatzea eta taula osagarriak kontsultatzea.

Funtzionalitate horren bidez, prebentzio-zerbitzuek bi eragiketa mota egin ditzakete:

- Aplikazioaren taula osagarri nagusiak kontsultatzea eta deskargatzea: agente kimikoak, fisikoak, biologikoak, Arrisku-faktore ergonomikoak, psikosozialak, arrisku-moten eta -kategorien sailkapenak, produktu-kategoriak, osasun-kalteen diagnostikoak...).
- Esposizioei buruzko datuak xml fitxategien bidez modu masiboan komunikatzea.
- Irteera-txostenak: zerrendak.

Funtzionalitate honen bidez, prebentzio-zerbitzu bakoitzak aurrez zehaztutako txostenen zerrenda eskuratu dezake eta txostenak sor ditzake, prebentzio-zerbitzurako eta/edo haren enpresa bakoitzeko.

Hauk dira jakinarazi beharreko datuak:

- Langileak arrisku-agente bakoitzarekiko duen esposizioa.
- Biztanleria horretan eragindako kalteak.

Ezaugarri orokorrak:

COVID-19 kontaktu estuak:

- Kontaktuaren komunikazioa pertsonala da, eta langilea identifikatzen du.
- Langilearen datuez gain, azken kontaktuaren data eta bajaren hasiera-data ere erregistratuko dira.

Esposizioen datuak:

- Esposizioak arrisku-agenteen talde bakoitzean jakinarazi behar dira, hau da: agente kimikoak, fisikoak, biologikoak, ergonomikoak, psikosozialak eta egoera arriskutsuen eraginpean egoteagatikoak.
- Datu erantsiak jakinarazi behar dira, sexuaren arabera bereizita.
- Prebentzio-zerbitzuak enpresa bakoitzean dagoen lantoki bakoitzeko datuak jakinarazi behar ditu, baldin eta osasun-zaintza estaldura ematen badie.
- Aldizkakotasuna urterokoa da: "Esposizioaren ohiko deklarazioa". Prebentzio Zerbitzuak garrantzitsutzat jotzen dituen esposizio berriak sartuz gero, "Ezohiko deklarazioa" egin ahal izango da.
- Ezarritako aldiak egin behar dira, urtero, eta urteko lehen hiruhilekoa izango da aurreko urtearen deklarazioa egiteko epea.

- Esposizioei buruzko datuak osasun-langileek nahiz osasun-langile ez direnek bidal ditzakete.
- Lantoki bakoitzeko langileen datuak guztira sartu behar dira, sexuaren arabera bereizita.

Kalteen datuak:

- Informazio-sistema honen bidez jakinarazi behar dira gaixotasun profesionalaren susmotzat har daitezkeen patologia, bai eta gaixotasun profesionalen koadroan jasota ez dauden baina osasun-langileek lan-jatorria dutela susmatzen duten patologia edo sintomak/zeinuak ere.
- Kalteen jakinarazpena pertsonala da, eta langilea identifikatzen du.
- Kasu berriak jakinarazi behar dira (intzidentzia).
- Ez dago ezarritako aldizkakotasunik, osasun-kaltea susmatzen den unean jakinaraziko da.
- Kalteak jakinarazten dituzten langileek osasun-langileak behar dute izan.

6. LANEKO ESPOSIZIOARI BURUZKO DATUAK

Arriskuen ebaluazioa da, enpresetan egin beharreko lehen prebentzio-jarduera den aldetik, atal honetan eskatzen den informazioa. Jarduera hori funtsezkoa da enpresaburua prebentzio-neurriak hartzeko premiari buruzko erabaki egokia hartzeko moduan egon dadin, eta, kasu horretan, hartu beharreko neurri motei buruzko erabaki egokia.

Saihestu ezin izan diren arriskuen ebaluazioa beharrezkoa da gerora lantokietan prebentzio-plangintza egiteko, eliminatu ezin izan diren arriskuak kontrolatzeko jarduerak programatu ahal izateko, eta langileen osasuna zaintzeko, zer arriskuren eraginpean dagoen kontuan hartuta.

Laneko esposizioa deklaratzeko, arrisku-faktore bakoitzeko egingo da.

ARRISKU-FAKTOREAK:

6.1. ARLOA

Lan-inguruneko arrisku-agentek sei talde handitan biltzen dira:

1. Agente kimikoak
2. Agente fisikoak
3. Agente biologikoak
4. Arrisku-faktore ergonomikoak
5. Arrisku psikosozialak
6. Egoera arriskutsuak

6.2. INTERESEKO ALDAGAIK

Interes-aldagaia zehazten diren arrisku-agentek bakoitzarekiko esposizioan dauden langileen kopurua da, sexuaren arabera bereizita.

6.3. ARRISKUBIDEEN SAILKAPENA ETA ESPOSIZIOPEKO LANGILEEN DEFINIZIOA INFORMAZIO-SISTEMA HONEN ONDORIOETARAKO

6.3.1. Agente kimikoak

Agente kimikoen zerrendan sartzen dira apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuak (Lanean dauden bitartean langileen osasuna eta segurtasuna gai kimikoekin erlazionatutako arriskuen kontra babesteari buruzkoa) eta bere ondorengo aldaketek **arriskutsutzat** hartutako agente kimikoak. Beraz, zerrenda honetan agente kimikoa da:

Langileen segurtasunari eta osasunari arriskua ekar diezaiokeen agente kimikoa, dituen propietate fisiko-kimiko, kimiko edo toxikologikoengatik eta lantokian erabiltzen den edo dagoen moduagatik. Definizio honetan sartzen dira, bereziki:

- *Edozein arrisku fisiko edo osasun-arrisku motaren barruan arriskutsu gisa sailkatzeko irizpideak betetzen dituzten agente kimikoak, Substantziak eta nahasteak sailkatzeari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 1272/2008 (EE) Erregelamenduan eta bere ondorengo aldaketetan (hemendik aurrera CLP Erregelamendua) ezarritakoak, alde batera utzita agente kimiko hori erregelamendu horretan sailkatuta dagoen ala ez.*
- *Aurreko paragrafoko irizpideak bete ez arren, ingurumen-muga-balioa duen agente kimiko oro 374/2001 Errege Dekretuaren I. eranskinean edo araudi espezifikoko aplikagarri batean edo, aurrekorik ezean, Laneko Segurtasun eta Osasuneko Institutu Nazionalak argitaratutako azken "Lanean agente kimikoen eraginpean egoteko mugak Espainian" dokumentuan ezarrita.*

Enpresa fabrikatzaileak emandako agente kimiko baten (sustantzia edo nahastea) sailkapena ezagutzeko informazio-iturria, harmonizatua izan zein ez, honako hau izango da: agenteen segurtasun-datuaren fitxa eta/edo haien etiketa. Haien nahitaezko edukia REACH Erregelamenduan eta CLP Erregelamenduan dago ezarrita, hurrenez hurren, eta enpresa erabiltzaile orok lortu behar du enpresa hornitzaile bakoitzak ematea, eta bere prebentzio organizazioari helarazi behar dio. Enpresa fabrikatzaileari buruzko zuzeneko informaziorik ez badago, aztertzen ari den agente kimikoa azpiproduktua edo prozesuan sortutako hondakina delako, adibidez, edo zalantzarik izanez gero, ECHAren weborria kontsulta daiteke agente horri lotutako arriskuei buruzko informazioa lortzeko.

Produktuaren etiketak eta segurtasun-datuaren fitxak, besteak beste, substantziaren edo nahastearen identifikazioa izan behar dute, baita arriskuena ere, eta arriskuek ohartarazteko esaldien (H esaldiak) eta piktogramen bidez adierazita joan beharko dute.

Intereseko aldagaia agente kimikoekiko esposizioan dauden langileen kopurua da, sexuaren arabera berezita, eta datu hori sartuko da prestatutako zerrendatik agente kimikoa hautatuz duen edozein identifikazio-daturen bidez (deskribapena, CAS, EINS, etab.).

Hautatutako agente kimiko bakoitza arriskubide-mota eta -kategoria batekoa da, eta arriskua adierazteko esaldi bat edo gehiago izango ditu (H esaldiak), aplikazio informatikoak automatikoki lotuko dituenak, agente kimikoa sailkapen harmonizatua izanez gero edo bere arriskubide-mota arau espezifikoak (1997/665 Errege Dekretua eta bere ondorengo aldaketak, 2020/1154 Errege Dekretua eta 2021/427 Errege Dekretua, kantzeriogenoei eta mutagenoei buruzkoa, adibidez) definitu badu. Horrela, eraginpean dauden langile kopuruaren gaineko informazioa lortu ahal izango da, adibidez, kantzerigenoen edo mutagenoen eraginpean.

Informazio-sistema honen ondorioetarako, agente kimiko batekiko esposiziotzat hartuko da apirilaren 6ko 374/2001 Errege Dekretuak jasotako definizioa: lantokian agente kimiko arriskutsu bat egotea, langilearekin kontaktuan dagoena, normalean inhalazio bidez edo dermiko bidez, ez bada bestelako esposizio-irizpide bat duen agente kimiko bat dela.

6.3.2. Agentes Fisikoak

Informazio-sistema honetan gaixotasun profesionalen agente eragileen Europako sailkapen-proposameneko agente fisikoen zerrenda jaso da (iturria: Eurostat). Halaber, iturri beretik erabili da kodetze-sistema.

Esposizioak deklaratzeko kontuan hartuko diren agente fisikoak eskema honi jarraituz antolatu dira:

- Zarata
- Bibrazioak:
 - Gorputz osoa.
 - Esku-beso segmentua.
- Erradiazioak:
 - Ionizatzaileak.
 - Ez-ionizatzaileak:
 - Laserra
 - Optika artifizialak:

- Erradiazio ultramorea
 - Erradiazio ikusgaia
 - Erradiazio infragorria
 - 300 GHz-rainoko eremu elektromagnetikoen bidezko erradiazioak.
- Presioa/hutsa.
 - Estres termikoa.

ZARATA:

286/2006 Errege-Dekretuak, langileak zaratarekiko esposizioari lotutako arriskuetatik babestekoak, definitzen du, alde batetik, esposizioaren muga-balioak eta, beste alde batetik, ekintza bat eragiten duten esposizio-balioak (behekoak eta goikoak), eguneko esposizio-maila baliokideari eta puntako maileri dagokienez, A eta C atenuazio-kurba aplikatuz, hurrenez hurren. Honelaxe finkatzen dira:

- Esposizioaren muga-balioak: $L_{Aeq,d} = 87$ dB(A) eta $L_{pico} = 140$ dB (C), hurrenez hurren.
- Ekintza bat eragiten duten esposizioaren goi-balioak: $L_{Aeq,d} = 85$ dB(A) eta $L_{pico} = 137$ dB (C), hurrenez hurren.
- Ekintza bat eragiten duten esposizioaren behe-balioak : $L_{Aeq,d} = 80$ dB(A) eta $L_{pico} = 135$ dB (C), hurrenez hurren.

Esposizioaren muga-balioak aplikatzean, langileak zaratarekiko duen esposizio erreala zehazterakoan, langileek erabiltzen dituzten entzumen-babes indibidualek ematen duten arintzea hartuko da kontuan. Ekintza bat eragiten duten esposizio-balioetarako, ez dira kontuan hartuko babes horiek eragindako efektuak.

Behar bezala justifikatutako egoeretan, eta betiere arriskuen ebaluazioan esplizituki jasota badago, zaratarekiko eguneroko esposizioa lanaldi batetik bestera nabarmen aldatzen den jardueretarako, ekintza bat sorrarazten duten muga-balioak eta esposizio-balioak aplikatzeko, asteroko zaratarekiko esposizio-maila erabili ahal izango da, eguneroko zaratarekiko esposizio-maila ordez, langileek jasaten duten zarata-maila ebaluatzeko, baldin eta:

- a. asteroko zaratarekiko esposizio-maila, kontrol egoki baten bidez lortua, ez bada 87 dB (A) -ko esposizioaren muga-balioa baino handiagoa izango, eta
- b. jardueri lotutako arriskua ahalik eta gehien murrizteko neurri egokiak hartuko badira.

Informazio-sistema honen ondorioetarako, zarataren eraginpean dagoen langile gisa definituko da: langilea, ekintza bat eragiten duten esposizioaren behe-balioak gainditzen diren lanpostua duena, hau da, lanpostu horretan eguneroko esposizio-maila baliokidea (L Aeq, d) 80 dB (A) baino handiagoa denean, edo puntako maila 135 dB (C) baino handiagoa denean.

BIBRAZIOAK

Azaroaren 4ko1311/2005 Errege Dekretuak (bibrazio mekanikoen eraginpean egoteagatik eratorritako edo erator litezkeen arriskuen aurrean dauden langileen osasuna eta segurtasuna babesteari buruzkoa) eta bere aldaketa dakarren martxoaren 13ko 330/2009 Errege Dekretuak honako hau definitzen dute:

- a. Esku-besoko sistemara transmititutako bibrazioa: bibrazio mekanikoa, giza esku eta besoko sistemara transmititzen denean, langileen osasunerako eta segurtasunerako arriskua dakarrena, bereziki arazo baskularrak, hezurrekoak edo artikulaziokoak, nerbiozkoak edo muskularrak.
- b. Gorputz osoari transmititutako bibrazioa: bibrazio mekanikoa, gorputz osoari transmititzen zaionean langileen osasunerako eta segurtasunerako arriskua dakarrena, batez ere lunbalgiak eta bizkarrezurreko lesioak.

Zortzi (8) orduko lanaldia erreferentziazat hartuta, eguneko esposizioaren muga-balioak eta **ekintza bat eragiten duten eguneko esposizio-balioak** hauxek dira:

1. Beso-esku sistemara transmititutako bibrazioarako: 5 m/s² eta **2,5m/s²**
2. Gorputz osora transmititutako bibrazioarako: 1,15 m/s² eta **0,5m/s²**

Informazio-sistema honen ondorioetarako, bibrazioekiko esposiziopeko langiletzat hartuko da ekintza bat eragiten duten eguneko esposizio-balioak gainditzen dituen bibrazioa jasaten duen langilea.

ERRADIAZIOAK:

Sailkapena:

- Erradiazio ionizatzaileak:
 - o X izpiak eta Gamma izpiak.
 - o Alfa radiazioak, beta radiazioak eta radiazio neutronikoak
- Laser (Erradiazio ez-ionizatzaileak dira, baina baldintza batzuetan, ionizazio ez-lineala eragiten dute).
- Erradiazio ez-ionizatzaileak:
 - o Eremu elektromagnetikoak , 0-tik 300 GHz-ra arte.
 - o Erradiazio optikoak

ERRADIAZIO EZ-IONIZATZAILEAK:

Erradiazio optiko artifizialak:

Informazio-sistema honen ondorioetarako, erradiazio optiko artifizialekiko esposiziopeko langiletzat hartuko dira (uhin-luzeretako edozeinetan) lantokian larruazalean eta begietan eragina izan dezakeen erradiazio-arriskua duten langileak, baldin eta ezarritako muga-balioetatik gorako erradiazio-mailak badituzte (*ikus 486/2010 Errege Dekretuaren, langileak erradiazio optiko artifizialekiko esposiziotik eratorritako arriskuetatik babesteari buruzkoaren I. eta II. eranskinetako erreferentziak*).

Erradiazio optikoak 100 nm eta 1 mm arteko uhin-luzera duten erradiazio elektromagnetikoak dira, eta 300 GHz eta 3.000 THz arteko maiztasuna dute. Erradiazio hau koherentea (laser) edo inkoherentea izan daiteke.

Erradiazio optikoak honela sailkatzen dira:

- Erradiazio ikusgaia: uhin-luzera: 380 nm- 780 nm; maiztasuna: 385 THz – 750 THz. Ortzadarraren zazpi koloretan deskonposatzen den erradiazioa.
- Erradiazio infragorria (IRA, IRB, IRC). Uhin-luzera: 780 nm – 1 mm; maiztasuna 300 GHz – 385 THz
 - IRA: 780 – 1400 nm
 - IRB. 1400 – 3000 nm

- IRC: 3000 nm – 1 mm
- Erradiazio ultramorea (UVA, UVB, UVC). Uhin luzera: 100- 400 nm; maiztasuna: 750 THz – 3.000 THz
 - UVA: 315 - 400 nm
 - UVB: 280 - 315 nm
 - UVC: 100 – 280 nm

Laserra da erradiazio-emisio estimulatua bidez argia anplifikatzeko ingelesezko akronimoa, eta honela definitzen da: erradiazio optikoaren uhin-luzeran erradiazio elektromagnetikoa sortu edo anplifikatu dezakeen gailu oro. Emisio estimulatua eta kontrolatua da.

Lasarren sailkapena (ikusit NTP 654; UNE EN 60825-1/A2: 2002):

- 1. mota- Seguruak erabilera-baldintzak zentzuzkoak direnean.
- 1M mota- 1. motakoak bezalakoak, baina ez dira seguruak tresna optikoen bidez hala nola lupak edo binokularrak begiratzen direnean.
- 2. mota- Laser ikusgaiak (400 - 700 nm). Abertsio-erreflexuek begia babesten dute, nahiz eta tresna optikoak erabili.
- 2. mota- 2. motakoak bezalakoak, baina ez dira seguruak tresna optikoak erabiltzen direnean.
- 3R mota: laserren zuzeneko ikusmena arriskutsu izan daiteke, baina arrisku txikia dute, eta 3B motakoak baino fabrikazio-betekizun eta kontrol-neurri gutxiago behar dituzte.
- 3B mota- sorta: zuzenean ikustea arriskutsua da beti, eta islapen difusoa, berriz, seguruak.
- 4. Mota: begi- eta azal-esposizio zuzena beti da arriskutsua, eta islapen difusoa ere izaten da normalean. Suteak eragin ditzakete.

Eremu elektromagnetikoengatik erradiazioak, 300 GHz-ra arte.

299/2016 Errege Dekretuka, uztailaren 22koa, lanean langileen osasuna eta segurtasuna eremu elektromagnetikoek dakartzaten arriskuetatik babesteari buruzkoak honako hau definitzen du:

a) "Eremu elektromagnetikoak": eremu elektriko estatikoak, eremu magnetiko estatikoak eta denboran aldakorak diren eremu elektriko, magnetiko eta elektromagnetikoak, 300 GHz-rainoko frekuentziakoak.

b) "Efektu biofisiko zuzenak": eremu elektromagnetiko batean egoteak zuzenean giza gorputzean eragiten dituen ondorioak, besteak beste:

i) efektu termikoak, hala nola ehunak berotzea eremu elektromagnetikoetatik datorren energia xurgatzeagatik,

ii) efektu ez-termikoak, hala nola muskuluen, nerbioen edo organo sentzorien estimulazioa; ondorio horiek kaltegarriak izan litezke espoziopeko langileen osasun fisiko eta mentalerako; gainera, organo sentzorien estimulazioak sintoma iragankorrak eragin ditzake, bertigoa edo fosfenoak, esaterako. Ondorio horiek aldi baterako ondoeza sor dezakete, edo ezagutzari edo garuneko edo muskuluetako beste funtzio batzuei eragin diezaiekete, eta, beraz, langileak modu seguruan lan egiteko duen gaitasunean eragin dezakete, hau da, segurtasun arriskueta, eta

iii) gorputz-adarretan korranteak;

c) "Zeharkako ondorioak": osasunerako edo segurtasunerako arriskutsua izan daitekeen eremu elektromagnetiko batean objektu bat egoteak eragindako ondorioak, hala nola:

i. interferentziak ekipo eta gailu mediko elektronikoen (bihotz-taupada-markagailuak eta gorputzean ezarritako edo eramandako beste inplante edo gailu mediko batzuk barne),

ii. objektu ferromagnetikoak eremu magnetiko estatikoetan proiektatzeko arriskua,

iii. gailu elektro-lehergailuak aktibatzea (detonagailuak),

iv. eremu induzituek, kontaktu-korranteek edo txinparten deskargak eragindako txinparten bidez material sukoiak piztearen ondoriozko suteak eta leherketak, eta

v. kontaktu-korranteak;

d) "Esposizioaren muga-balioak": kontsiderazio biofisiko eta biologikoetatik abiatuta ezarri diren balioak, bereziki zientifikoki egiaztatutako epe laburreko ondorio zuzen akutuetan oinarrituta, adibidez, efektu termikoak eta ehunen estimulazio elektrikoak;

e) "Osasunerako eraginei lotutako esposizioaren muga-balioak": esposizioaren muga-balioak, gainditzen badira, langileen osasunerako ondorio kaltegarriak izan daitezkeenak, hala nola beroketa termikoa edo nerbio- eta muskulu-ehunaren estimulazioa;

f) "Eragin sentsozialei lotutako esposizioaren muga-balioak": esposizioaren muga-balioetatik gora, langileak zentzumen-pertzepzioen nahasmendu iragankorrak eta garuneko funtzioetan aldaketa txikiak jasan ditzake;

g) "Ekintza-mailak": dagozkion esposizioaren muga-balioak betetzen direla erakusteko ezarritako maila operatiboak, edo, hala badagokio, errege dekretuan ezarritako babes- edo prebentzio-neurriak hartzeko ezarritakoak.

II. eranskinean erabilitako ekintza-mailei buruzko terminologia honako hau da:

i) Eremu elektrikoetarako, "beheko ekintza-mailak" eta "goragoko ekintza-mailak" errege dekretuan ezarritako babes- edo prebentzio-neurri espezifikoiei lotutako mailak izango dira, eta

ii) Eremu magnetikoen kasuan, "beheko ekintza-mailatzat " hartuko dira eragin sentsozialei lotutako esposizioeko muga-balioei dagozkien mailak, eta "goragoko ekintza-mailatzat ", osasun-eraginei lotutako esposizioaren muga-balioei dagozkienak.

Informazio-sistema honen ondorioetarako, 300 GHz-ra arteko eremu elektromagnetikoen bidez erradiazioarekiko esposiziopeko langiletzat hartuko dira errege dekretuko II. eta III. eranskinetan jasotako ekintza-mailetan definitutako balioak gainditzen dituzten lanpostuen langileak.

Efektu ez-termikoak

EKINTZA-MAILAK

Honako magnitude eta balio fisiko hauek ekintza-mailak (EM) definitzeko erabiltzen dira, eta horien balioak ezarrita daude, bermatzeko, ebaluazio sinplifikatu baten bidez, errespetatu egiten direla frekuentzia bakoitzari dagozkion esposizioaren muga-balioak edo beharrezkoak diren babes- edo prebentzio-neurriak hartzera behartzen dituzten balioak.

1 Hz-tik 10 MHz-ra bitarteko eremu elektrikoekiko esposizioaren ekintza-mailak:

Maiztasun-tartea	JM (E) eremu elektrikoaren intentsitatea baino txikiagoa (Vm^{-1}) (RMS)	JM (E) eremu elektrikoaren intentsitatea baino handiagoa (Vm^{-1}) (RMS)
$1 \leq f < 25$ Hz	$2,0 \times 10^4$	$2,0 \times 10^4$
$25 \leq f < 50$ Hz	$5,0 \times 10^5 / f$	$2,0 \times 10^4$
$50 \text{ Hz} \leq f < 1,64$ kHz	$5,0 \times 10^5 / f$	$1,0 \times 10^6 / f$
$1,64 \leq f < 3$ kHz	$5,0 \times 10^5 / f$	$6,1 \times 10^2$
$3 \text{ kHz} \leq f \leq 10$ MHz	$1,7 \times 10^2$	$6,1 \times 10^2$

1 Hz eta 10 MHz bitarteko eremu magnetikoekiko esposizioetarako ekintza-mailak:

Frekuentzia-tartea	JM (B) txikiagoa fluxu magnetikoaren dentsitaterako (μT) (RMS)	JM (B) handiagoa fluxu magnetikoaren dentsitaterako (μT) (RMS)	JM fluxu magnetikoaren dentsitaterako, gorputz-adarrak eremu magnetiko lokalizatu batekiko esposiziorako (μT) (RMS)
$1 \leq f < 8$ Hz	$2,0 \times 10^5 / f^2$	$3,0 \times 10^5 / f$	$9,0 \times 10^5 / f$
$8 \leq f < 25$ Hz	$2,5 \times 10^4 / f$	$3,0 \times 10^5 / f$	$9,0 \times 10^5 / f$
$25 \leq f < 300$ Hz	$1,0 \times 10^3$	$3,0 \times 10^5 / f$	$9,0 \times 10^5 / f$
$300 \text{ Hz} \leq f < 3$ kHz	$3,0 \times 10^5 / f$	$3,0 \times 10^5 / f$	$9,0 \times 10^5 / f$
$3 \text{ kHz} \leq f \leq 10$ MHz	$1,0 \times 10^2$	$1,0 \times 10^2$	$3,0 \times 10^2$

I_c kontaktu-korronterako ekintza-mailak (EM) :

Frekuentzia	JM (I_c) ukipen-korronteak (mA) egoera egonkorrean (RMS)
2,5 kHz-raino	1,0
$2,5 \leq f < 100$ kHz	$0,4 / f$
$100 \text{ kHz} \leq f \leq 10.000$ MHz	40

Eremu magnetiko estatikoen fluxu magnetikoaren dentsitaterako ekintza-mailak (EM):

Arriskuak	JM (B ₀)
Interferentziak jarritako gailu mediko aktiboekin, adibidez bihotz-taupada-markagailuekin	0,5 mT
Erakartzeko eta proiektatzeko arriskua eremu bizietako iturrien eremu periferikoetan (> 100 mT)	3 mT

Efektu termikoak

EKINTZA-MAILAK

Honako magnitude eta balio fisiko hauek ekintza-mailak definitzeko erabiltzen dira, eta horien balioak ezarrita daude, bermatzeko, ebaluazio sinplifikatu baten bidez, errespetatu egiten direla frekuentzia bakoitzari dagozkion esposizioaren muga-balioak edo beharrezkoak diren babes- edo prebentzio-neurriak hartzerantz behartzen dituzten balioak.

100 kHz eta 300 GHz bitarteko eremu elektriko eta magnetikoetako esposizioetarako ekintza-mailak (EM):

Frekuentzia-tartea	JM (E) eremu elektrikoaren intentsitatea (V _m ⁻¹) (RMS)	JM (B) fluxu magnetikoaren dentsitatea (μT) (RMS)	JM (S) potentzia-dentsitatea (en Wm ⁻²)
100 kHz ≤ f < 1 MHz	6,1 x 10 ²	2,0 x 10 ⁶ / f	-
1 ≤ f < 10 MHz	6,1 x 10 ⁸ / f	2,0 x 10 ⁶ / f	-
10 ≤ f < 400 MHz	61	0,2	-
400 MHz ≤ f < 2 GHz	3 x 10 ⁻³ f ^{1/2}	1,0 x 10 ⁻⁵ f ^{1/2}	-
2 ≤ f < 6 GHz	1,4 x 10 ²	4,5 x 10 ⁻¹	-
6 ≤ f ≤ 300 GHz	1,4 x 10 ²	4,5 x 10 ⁻¹	50

Egoera egonkorreko kontaktu-korronteetarako eta gorputz-adarretan eragindako korronteetarako ekintza-mailak (EM):

Frekuentzia-tartea	JM (I _c) ukipen-korronteak egoera egonkorrean (mA) (RMS)	JM (I _c) gorputz-adar batean eragindako korronteak (mA) (RMS)
100 kHz ≤ f < 10 MHz	40	-
10 MHz ≤ f ≤ 110 MHz	40	100

ERRADIAZIO IONIZATZAILEAK

Erradiazio ionizatzaileen aurkako osasun-babesari buruzko erregelamendua aldatzen duen uztailaren 6ko 783/2001 Errege Dekretua (eta bere ondorengo adaketak) aplikatuko zaie tratamenduagatik, ustiapenagatik, erabileragatik, merkaturatzeagatik eta abarregatik iturri artifizialeetatik edo erradiazio-iturri naturaleetatik datozen erradiazio ionizatzaileen ondoriozko arriskua dakarten jardueri, baita iturri naturalak izateagatik erradiologia-ikuspegitik esposizioa gutxiesgarritzat jo ezin den beste jarduera batzuei ere. Errege Dekretu horren ondorioetarako, honela definitzen da:

Esposiziopeko langilea: erregelamendu honetan aipatzen diren praktiken ondorioz, lanagatik esposiziopean dauden pertsonak, baldin eta publikoarentzako dosi-mugaren bat baino dosi handiagoak badira.

Kanpoko langileak: esposiziopeko langile gisa sailkatutako edozein langile, instalazio nuklear edo erradioaktibo bateko eremu kontrolatuan edozein motatako jarduerak egiten dituena eta aldi baterako edo modu iraunkorrean kanpoko enpresa batean enplegatuta dagoena, izan praktika profesionaletan ari den langilea, prestatzen ari den pertsona edo ikaslea, edo bere konturako langile gisa lan egiten duena.

Eremu kontrolatua: erradiazio ionizatzaileen aurkako babeserako erregulazio bereziaren pean dagoen eremua.

Zaindutako eremua: erradiazio ionizatzaileen aurka babesteko zaintza egokia behar duen eremua.

Esposiziopeko langileentzako dosien mugak:

1. Esposiziopeko langileentzako dosi eraginkorraren muga 100 mSv-koa izango da segidako 5 urteko aldi osoan, eta asko jota 50 mSv-koa edozein urte ofizialetan.
2. Aurrekoari kalterik egin gabe:
 - a. Kristalinoaren dosi baliokidearen muga 150 mSv izango da urte ofizial bakoitzeko.
 - b. Larruazalaren dosi baliokidearen muga 500 mSv-koa izango da urte ofizial bakoitzeko. Muga hori 1 cm²-ko edozein azaleraren gaineko batez besteko dosiari aplikatuko zaio, esposiziopeko aldea edozein dela ere.
 - c. Eskuetarako, besaurretarako, oinetarako eta orkatiletarako dosi baliokidearen muga 500 mSv-koa izango da urte ofizial bakoitzeko.

Dosi-mugak publikoarentzat:

1. **Publikoaren dosi eraginkorraren muga 1 mSv izango da urte ofizial bakoitzeko. Hala ere, egoera berezietan, Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak dosi eraginkorraren balio handiagoa baimendu ahal izango du urte ofizial bakar batean, baldin eta segidakoko bost urte ofizialetako batez bestekoak ez badu 1 mSv gainditzen urte ofizial bakoitzeko.**
2. **1. paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe:**
 - a. **Kristalinoaren dosi baliokidearen muga 15 mSv izango da urte ofizial bakoitzeko.**
 - b. **Larruazalaren dosi baliokidearen muga 50 mSv-koa izango da urte ofizial bakoitzeko. Muga hori batez besteko dosiari aplikatuko zaio 1 cm²-ko edozein azaleraren gainean, esposiziopeko azalera edozein dela ere.**

Esposiziopeko langilearen definizioa eta dosi baliokidaren mugak kontuan hartuta, esposiziopeko langileak honela sailkatzen dira:

A kategoria: kategoria honetakoak dira, lana zer baldintzatan egiten duten kontuan hartuta, urte ofizial bakoitzeko dosi eraginkorra 6 mSv-tik gorakoa edo kristalinoaren, larruazalaren eta gorputz-adarren dosi baliokidearen muga 3/10etik gorakoa jaso dezaketen pertsonak.

B kategoria: kategoria honetakoak dira, lana zer baldintzatan egiten duten kontuan hartuta, urte ofizial bakoitzeko 6 mSv baino dosi handiagoak jasotzea oso gertagaitza duten pertsonak edo oso zaila kristalinoaren, larruazalaren eta gorputz-adarren dosi baliokideen mugen 3/10 baino dosi handiagoak jasotzea.

PRESIOA/HUTSA

- **PRESIO TXIKIAK**

Presio baxuen eraginpean egotearen ondoriozko arriskuak izan daitezke 1.500 m-tik gorako altitudetan egiten diren meatzaritzako, nekazaritzako, eraikuntzako, behaketa astrofisikoko eta abarreko jardueretan. Altitude hori altitude handitzat jotzen da eta, ondorioei dagokienez, 2.100 metrotik aurrera oxihemoglobinarene saturazioa izugarri murrizten da.

Altitude handiek gizakiarengan dituzten ondorio garrantzitsuenek lotura dute presio barometrikoaren (PB) aldaketekin eta haien ondorioz airean gertatzen diren oxigeno-presio (O_2) aldaketekin.

Presio barometrikoa modu logaritmikoan gutxitzen da altitudea handitzean, eta hurrengo ekuazioaren bidez kalkula daiteke:

$$PB = 760(e^{-a/7924})$$

a = altitudea, metrotan adierazita.

Hala ere, beste faktore batzuek ere eragina dute parametro horietan, hala nola Ekuadorrerako distantziak eta urtarokak.

Altitude handietarako aklimatazioa eskaera metabolikoak betetzeko adinako oxigeno-ekarpena mantentzean oinarritzen da, airean O_2 -ren Presioa jaitsi arren.

Presio barometrikoaren murrizketaren ondorio fisiopatologikoak:

- Hipoxia eta horren ondorioak (zefalea, nahasmena, euforia, konortea galtzea).
- Mendiko gaitz akutua, oro har, igoera azkarraren ordu gutxira agertzen da, 2.500 m-tik gorako altitudeetara; sintoma ohikoenak zefalea (gauetz biziagoa), jateko gogoia galtzea (goragalea eta gorakoak izan ditzake), loaren asaldurak eta nekea dira.
- Altuera handietako biriketako edema. 2.700 m-tik gorako altitudeak igotzen dituzten pertsonetatik % 0,5 - % 2,0ri eragiten die, gutxi gorabehera, eta altuera handietan heriotza eragiten duen gaixotasun ohikoena da.

- Altuera handietako garun-edema. Mendiko gaitz akutuaren muturreko fasea da, garuneko disfunzio orokor bat eragin arte aurrera egin duena. Edemak aurrera egin ahala, beste sintoma neurologiko batzuk agertzen dira, hala nola suminkortasun larria eta insomnia, ataxia, haluzinazioak, paralisia, konbultsioak eta, azkenik, koma.
- Erretinako odoljarioak. Erretinako odoljarioak oso ohikoak dira, eta 3.700 metroko altitudera igotzen direnetatik % 40ri eragiten die, baita 5.350 metroko altitudera igotzen direnetatik % 56ri ere.
- Mendiko gaitz kronikoa: gizonezkoei gehiago eragiten die emakumeei baino. Kaltetuek pletora, zianosia eta odol-masa zelularraren igoera dute, eta horrek sintoma neurologikoak eragiten ditu, hala nola zefalea, zorabioak, logura eta oroimenaren alterazioak. Eskuineko bihotz-gutxiegitasuna (cor pulmonale) gara dezakete, biriketako hipertentsioaren eta oxihemoglobinaren saturazioaren beherakada handiaren ondorioz.

